SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

# Soziolinguistika albistaria

112. zenbakia

2021eko abenduak 3 – abenduak 16

## Soziolinguistika Klusterreko albisteak

### Udalerri euskaldunetako haurrek gaztelaniara gero eta lehenago jotzea aztergai

[BERRIA] Haurrek gaztelaniaz gero eta adin goiztiarragoetan hitz egitea zein faktorek eragiten duten identifikatzea eta, faktore horietatik abiatuta, hizkuntza aldaketarako estrategiak proposatzea. Horiexek dira Uema eta Soziolinguistika Klusterra elkarlanean egiten ari diren ikerketaren helburuak.

### «Ulermen unibertsalera iristea da premiarik handiena»

[BERRIA] Euskaraz ez dakien batek hirurogei orduan gutxienez A1 mailako ulermen gaitasuna lortzea da Uler-saioak metodologiaren helburua. Pello Jauregi (Donostia, 1958) EHUko irakasle eta ikerlariak garatu du, eta Soziolinguistika Klusterrak argitaratu, Aldahitz ikerketaren ezaugarriak azaltzen dituen materiala.

### Una metodología pionera para aprender euskara en 60 horas

[NAIZ] La metodología 'Uler-Saioak' nace con la clara intención de superar la imposibilidad de comunicación cuando uno de los interlocutores apenas sabe euskara. Este último año se han puesto en marcha diez experiencias piloto de este tipo en diferentes localidades del País Vasco.

## Ikerketak

### Submit your linguistic assertiveness story

[LISTEN PROJECT] The purpose of the LISTEN project (https://listen-europe.eu) is to give speakers of minoritised languages the means to act on their behaviour and modify it by adopting strategies of linguistic assertiveness and we are looking for your personal stories.

### 15-29 urteko euskal gazteen %32,8´k dio euskarazko libururen bat irakurri duela azken hiru hilabeteetan

[Eusko Jaurlaritza] 2021ean, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 32,8k adierazi du euskarazko libururen bat irakurri duela azken hiru hilabeteetan. Gizonen eta emakumeen arteko aldea ez da irakurketan oro har bezain handia.

## Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

### Bolumena igo, ertzetan ere entzun dadin

[BERRIA] Eremu erdaldunetako gazteei euskararen eta euskal kulturaren transmisioa nola bermatu aztertu dute jardunaldi batean. Zenbait adituk esan dute periferia, arazoa baino gehiago, «irtenbidea» izan daitekeela.

### I Congrés Internacional sobre el Dret a la Llengua (València)

[Universitat de València] La Càtedra de Drets Lingüístics de la Universitat de València i el grup de recerca TRAP (Traducció i Postmonolingüisme) organitzen el I Congrés Internacional sobre el Dret a la Llengua, que tindrà lloc a València, del 15 al 17 de juny. Podeu trobar tota la informació a http://cidl.uji.es i el termini de presentació de propostes serà obert fins a l'1 de febrer de 2022.

### Conclusións dos XXIII Encontros para a Normalización Lingüística

[Consello da Cultura Galega] Os pasados días 25 e 26 de outubro, e 4 de novembro de 2021, tiveron lugar os XXIII Encontros para a Normalización Lingüística, que nesta edición se centraron na transmisión interxeracional da lingua galega. Partindo das reflexións, la organización elaborou un documento de conclusións que cre pertinente compartir.

### Aires nous a la política lingüística: VIII Jornada sobre Llengua i Societat als Territoris de Parla Catalana – Albert Fabà

[Generalitat de Catalunya] Albert Fabà egileak artikulu honetan katalan hiztunak diren eremuko Hizkuntza eta Gizartea jardunaldien ibilbidea deskribatzen digu "De la I a la VIII Jornada sobre Llengua i Societat als Territoris de Parla Catalana". Bestalde, duela aste batzuk ospatu zen jardunaldiak eman zuena ere azaltzen du.

—

## Liburuak eta artikulu zientifikoak

### Arabako euskalgintza ekaitzaren barruan (1939-1975)

[UZTARO] Araban garai zail hauetan abian jarritako euskararen aldeko borrokaren laburpen bat egiten du egileak, baita berreuskalduntzeko bidea abiatu zutenei omenaldi xume bat egin ere.

### Hizkuntza praktikak "online", Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle euskaldunen artean

[RIEV] Nafarroako gazte euskaldunen onlineko komunikazioaren ezaugarri linguistikoak aztertzea da artikulu honen xedea, hainbat alorretatik begiratuz.

### Best practices and lessons learned to preserve, revitalize and promote Indigenous Languages

[UNESCO] Today, at the dawn of the International Decade of Indigenous Languages, UNESCO is releasing the Flagship Report of the 2019 International Year of Indigenous Languages (IYIL2019), that highlights the main achievements and lessons learnt from this global initiative.

### Minority Language Learning and Use: Can Self-Determination Counter Social Determinism?

[Journal of Language and Social Psychology] To what extent is minority language use in society imposed by social determinism, a force acting on individuals based on the language group's relative vitality in terms of demography, institutional support, and status?

### Hizkuntza ideologien inguruko lanak Llengua i Dret aldizkariko 76. zenbaki berrian

[Revista Llengua i Dret] Kalean da Llengua i Dret aldizkariko 76. zenbakia eta ohi bezala, lege-esparruan hizkuntza politikako hainbat lanketa, diagnostiko, kronika eta hausnarketa partekatu dituzte. Tartean dago, adibidez, "Bilingüisme de sentit únic: els obstacles a la plenitud institucional de les llengües perifèriques de l'Estat espanyol" artikulua.

*Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean HABE Liburutegira (liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.*

—

## Bestelako albisteak

### Begi-kolpea euskararen lurraldeko hizkuntza politikei

[NAIZ] Euskararen Nazioarteko eguna ospatu ohi da abenduaren 3an, eta horrekin bat dozenaka dira antolatzen diren ekitaldiak- Nondik begiratzen zaion, ezberdina bezain urruna da euskararen egoera gure zazpi lurraldeetan; bai bederen hiru administrazioetako arduradun politikoen iritziak entzunda.

### Miren Dobaran: "Emakumeak ari dira lideratzen euskararen biziberritze prozesua"

[Hamaika Telebista] Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordea elkarrizketatu dugu Hamaika Telebistan. Euskararen biziberritzearen inguruko hainbat gako partekatu ditu bideo honetan.

### «Lan munduak behar du euskara», Fagor Taldeari Abbadia saria ematearen harira

[NAIZ] Lan munduan euskararen sustapenean egin izan duen lanagatik erreferente bilakatu da Fagor Taldea, eta merezimendu horrek eraman du aurtengo Antton Abbadia saria eskuratzera. Leire Okarantza Fagor Taldeko Gestio arduradun eta Euskara koordinatzaileak esan digu «taldea osatzen duten zortzi kooperatibei egindako aitortza» dela, eta «oso eskertuta» eta aldi berean «harrituta» ere badirela.

### Euskarak luzaroago iraungo du katalanak baino?

[BERRIA] Antoni Strubell i Trueta filologoa Euskal Herrian bizi izan da, eta azken hamarkadetan bi herrialdeetan ezarri diren hizkuntza ereduak erkatu ditu, Elnacional.cat hedabidean. Larunbatean egingo dute murgiltze ereduaren aldeko manifestazioa Bartzelonan.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

**Babeslea:**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**Bazkide partaidea:**

emun
Euskara eta berrikuntza soziala